



3. AKTA

2005eko otsailaren 22an egindako **EZOHIKO UDALBATZA**

NON: Pasaiako Hirian eta udaletxean.

NOIZ: Bi mila eta bosteko otsailaren hogeita bian.

Bilkura buru Izaskun Gómez Cermeño alkatea dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta behin-behineko idazkaria bertan dela, ondorengo zinegotziak etorri dira:

PSE-EE-tik

Lore Suárez Linazasoro a.

Rafaela Romero Pozo a.

Lucía Querido Noceti a.

Juan Manuel Domínguez López j.

EAJ-tik

Jose Luis Goikoetxea Garmendia j.

José Manuel Anso Martínez j.

Juan Ignacio Lasurtegi Berridi j.

Joaquín Martínez Vidal j.

EA-tik

Miriam Cano Puy a.

Mariví Roteta Mujika eta

Aitor Larrañaga Burguera

PP-tik

Guillermo Sánchez-Berra Quintana j.

José Luis Mtez. de Espronceda Luiña j.

IU/EB-tik

Jesús M^a García Garde j.

Fco. Javier Pombo González j.

Ohiko bilkura egiteko elkartu dira goian izendatu ditugunak, zehaztutako data eta tokian, aurretik bidali zaien bilera-deiari jarraiki. Ez du ezin etorria justifikatu Juan Ramon Gonzalez Medrano atxiki gabeko zinegotziak. Halaber, bilkura honetan izan da Karmele Lizaso Ubera andrea, behin-behineko kontu-hartzailea.



Bilkura buruak ikusi du batzordekide aski badagoela Udalbatza eratzeko eta bilkurari hasiera eman dio 9:00etan; ondoren gai-zerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekin zaio.

1.-Aurreko batzarraldietako aktak irakurri eta onartzea: 14.a, 16.a eta 1.a, 04-11-29, 04-12-28 eta 05-01-26 datakoak, hurrenez hurren.,

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren, aho batez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea, ondoko zuzenketak egin ondoren:

16. akta, 04-12-28koa:

4. orrialdean, Partidu Popularreko zinegotzi-taldearen ordezkari den Guillermo Sánchez-Berra jn.ren parte-hartzean honako aldaketa:

Ondokoa dioen tokian: "...aurreratu du bere posizioa ez datorrela bat bere alderdiaren Exekutiba Probintzialarekin eta kanpo Portuaren aldekoa dela"

Ondokoa jarri: "...aurreratu du agian bere posizioa ez datorrela bat bere alderdiaren Exekutiba Probintzialarekin eta kanpo Portuaren aldekoa dela"

2.- Xedapen ofizialak eta alkate eta zinegotzi-ordezkarien ebazpenen berri ematea.

Bertaratutakoaren esku jarri da alkate eta zinegotzi-ordezkarien Ebazpen-liburua, horren berri izan dezaten.

Halaber, idazkariak ondokoaren berri eman du:

- Partidu Popularreko zinegotzi-taldeak idazki bat aurkeztu du Gazteria eta Kirol Batzordean ordezkaria aldatu dutela jakinarazteko: aurrerantzean titularra José Luis Martínez de Espronceda jn.a izango da eta ordezkaria Guillermo Sánchez-Berra Quintana; Kirol Patronatuan titularra José Luis Martínez de Espronceda jn.a izango da eta ordezkaria Guillermo Sánchez-Berra Quintana.
- Epaia, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko auzietako Salak 2004ko abenduaren 20an emana, 509/03 zenbakia duen apelazio-errekurtsoari buruz. Errekurtso hori Pasaiako Udalak jarri zuen Administrazioarekiko Auzien Donostiako 1. Epaitegiak 2003ko martxoaren 25ean emandako epaiaren aurka. Epaian apelazio-errekurtsoa ezetsi eta kostuak ezartzen zaizkio apelatzaileari.

3.- Alkatearen gestioak eta Gobernu Organoen kontrola (T.E.O.L.ren 46.2.e) artikulua arabera).

Alkate andreak azkeneko bilkuratik hona egindako gestioen berri eman du, ondorengo hauek dira:

- Errepideetako diputatuarekin bilera, Antxora sartzeko biribilguneari buruz.
- Sprilur-eko ordezkariarekin bilera, Zinealdea proiektuari buruzko gaiez hitz egiteko.
- Lurralde Antolamendu Saileko ordezkariarekin bilera, N-1 errepideari buruz hitz egiteko.
- Arartekoaren ondoko udalera egindako bisita.
- Donibaneko hainbat talderekin bilera, kirol eraikuntza zertan datzan azaltzeko.
- San Pedroko Quorumeko ordezkariarekin bilera, Aztiren instalazioari buruz hitz egiteko.
- Erakunde arteko Batzordearen bilera Aldundian.
- EUDELen Lurralde Batzordea
- Trintxerpe XXI-eko ordezkariarekin bilera.
- Ogasun Ministerioko eta Europar Batzordeko ordezkariarekin bisita. Hainbat bisita: Portuko Agintaritza, eledunak, bizilagunak, Badia Berriko administrazio-kontseiluko kideak eta ahaldu nagusia.
- Angel Aramendirekin bilera, Navalaldeari buruz hitz egiteko.
- Oarsoaldeko Administrazio Kontseilua.
- Paco Prieto eta Albaola elkartearen arteko bilera. Gaia: San Juan galeoiaren eraikuntza.
- Portuko Agintaritzaren Kontseilua.
- Angel Aramendirekin bilera.
- Sprilur-eko ordezkariarekin bilera Zinealdeari buruz hitz egiteko.

PERTSONALA ETA ADMINISTRAZIOA

4.- Elkarkidetzaren kontrol-batzordea. Udalak pentsio-planari egingo dien ekarpena

BASE-Elkarkidetzak proposamena aurkeztu du Elkarkidetzaren kontrol-batzorde paritarioan erakundeek izango dituzten ordezkariak izendatzeko eta udalak zuzenean kopuru bat eman dezan BASErentzat, legeak baimentzen duen bezala, Udalbatzak, bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Elkarkidetzaren kontrol-batzorde paritarioan Pasaiako Udalaren izenean aritzeko ondoko korporaziokideak izendatzea: Izaskun Gómez Cermeño alkate a.; Lore Suárez Linazasoro zinegotzi a., Mariví Roteta Mujika zinegotzi a. Eta Guillermo Sánchez-Berra Quintana zinegotzi jn.



BIGARRENA.- Oraingo sistema berarekin jarraitzea, Pentsio Planari erakundeak egiten dion ekarpenarekin, alegia.

5.- Antxoko azokan postu baten esleipena.

Antxoko azokako 3. postua –gaur egun hutsik dagoena– enkante bidez esleitzeko prozedura bideratu da eta ez da lizitatzailerik aurkeztu.

Gerora, AXIER MORENO YANCI jn.ak postu hori (Antxoko azokako 3.a) hartzeko interesa azaldu du, 2005eko urtarrilaren 25ean udaleko erregistro orokorrean aurkeztutako idazkiaren bidez.

Pasaiaiko Udalak hutsik dagoen postu hori lehenbailehen esleitzeko premia du, eta Antxoko azokako beste postuetako adjudikatzailerik ere badute horretarako interesik. Gainera, era horretako postu bat hutsik egoteak kalte baino ez dio egiten azokari, bertako erabiltzaileak erakartzeko oso garrantzitsua baita. Horiek guztiak kontuan hartuta, Udaltzak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- Antxoko azokako 3. postua esleitzeko enkantea hutsik geratu dela adieraztea, ez baita lizitatzailerik aurkeztu.

BIGARRENA.- Antxoko azokako 3. postua AXIER MORENO YANCI jn.ari esleitzea 20 urterako, bere garaian enkanterako egin zen Baldintza Agirian ezarritako lizitazio-prezioan (4.271,4 €), bertan harategi-urdaitegia jartzeko.

HIRUGARRENA.- Adjudikaziodunak zorrotz bete beharko du Azkoken Udal Araudia.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau udal Kontu-hartzailezari jakinaraztea, dagozkion udal ordainarazpenak likidatzearen.

BOSGARRENA.- Akordio hau Obra eta Zerbitzuetako Sailari eta Udaltzaingoari jakinaraztea.

SEIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

- Gai-zerrendatik kanpo eta Udalbatzako legezko kideen gehiengo osoz premiazkotzat jo ondoren, ondoko akordioa hartu da, bertako zinegotzien aho batez.
- Aktan jasota gera dadin, gai-zerrendan sartu eta premiazkotzat jotzearen aldeko boza eman dute EAJ (4), EA (3) eta PP (2) taldeetako BEDERATZI (9) zinegotziek, eta aurkakoa, berriz, PSE-EE (5) eta EB (2) taldeetako ZAZPI zinegotziek.

6.- Mozio adostua, San Marcoseko zabortegiaren itxierari buruzkoa.

“San Markoseko hondakindegia 1970 ezkerro martxan dago. Horrela, hondakindegia horrek beti eragin izan dizkio Pasaiako eta Oarsoaldeko biztanleriari hainbat gogaipen. Gainera, inguru horretako narriaduran eragin duen aldagai bat gehiago izan da. Izan ere, beti jaurti dituen usain – txarrak baino gehiago- jasanezinek, lixibazio-jarioek, gasa-sorketek, etab.ek eragin dute pasaitarren eta inguruko herritarren bizi-kalitatea hein handi baten hondatzen, eta halaxe jarraitzen dute orain ere, besteak beste, azpiegitura hau jende asko bizi den lekuetatik hurbil dagoelako.

Era berean, gure ustez, garrantzitsua da hondakin honen bizi-iraupena, 2006 amaieran ixtea pentsatzen zen baino haratago ez luzatzea, hots, San Markos Mankomunitateko Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketarako Plan Integralean adierazi bezala, eta aipatu Plan hori gauzatzekoan herritarrek parte hartzeko prozesuan banatu zen dokumentuan adierazi bezala.

Gure aburuz, San Markoseko hondakindegia bizi luzatzeak pasaitarrok merezi ez dugun zigorra emango digu, izan ere, Mankomunitateko eta bertan botatzen duten gainontzeko herriekiko elkartasun-printzipioa soberan bete dugula uste baitugu. Bestalde, kontuan hartu behar dugu Europako jarraibideek azpiegitura duela, are gehiago Gipuzkoako hiri-hondakin bakarra izanik.

Hori guztiagatik, Udal honetako alderdi politikoek, Udal honetako ordezkariak Udalbatzak berak izendatuak direla kontuan izanik, dagokion ondorioetarako, ondoko erabakiak hartzeko proposamena egin dute:

1. Exijitzea San Markoseko Mankomunitateko Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketarako Plan Integralean aurreikusi eta erabaki bezala, eta eskatzea San Markos Mankomunitateko gainontzeko udaletako udalbatzei erabaki honekin bat egin dezaten.
2. Erabaki hau San Markos Mankomunitateko Batzordera bidaltzea.

Pasaian, 2005eko otsailaren 22an.

Sinatua: PSE-EE udal taldea: Rafalea Romero; EAJ-PNV udal taldea: José Luis Goikoetxea; EA udal taldea: Miriam Cano; PP udal taldea: Guillermo Sánchez-Berra eta EB-IU udal taldea: Jesús M^a García Garde.”

- Aktan jasota geratzeko esandakoak:
 - Hasiara batean EA eta EAJ-ko zinegotziek aurkeztutako mozioa irakurri dute.
 - Jesús M^a García Garde jn.ak, EBko zinegotzi-taldearen ordezkariak, adierazi du mozioan ez dela esaten zaborrarekin zer egin, eztabaida horretan parte hartzeko asmoa izan arren. Horregatik ondoko galdera egin du: EAJ taldeak zaborrarekin zer egitea proposatzen du 2006tik aurrera?
 - José Luis Goikoetxea jn.ak, EAJ zinegotzi-taldeko eledunak, adierazi du adostasuna lortzearen bere taldea aurkeztutako mozioaren zati bat aldatzeko prest dagoela, zehazki 2. atala, hondakindegia balio-bizitza luzatzeko dauden asmoen arrazoien azalpenari buruzkoa: atal hori moziotik kanpo geratuko litzateke.
 - Rafaela Romero and.ak, PSE-EEko zinegotzi-taldearen izenean, etenaldia eskatu du akordioa adosteko. Alkateak baiezkoa eman du.
 - Bilkurari berriz ekin eta testu adostua bozkatu dute.
- Gai-zerrendatik kanpo eta Udalbatzako legezko kideen gehiengo osoz premiazkotzat jo ondoren, ondoko akordioa hartu da, bertako zinegotzien aho batez:

- Aktan jasota gera dadin, gai-zerrendan sartu eta premiazkotzat jotzearen aldeko boza eman dute EAJ (4), EA (3) eta PP (2) taldeetako BEDERATZI (9) zinegotziek, eta aurkakoa, berriz, PSE-EE (5) eta EB (2) taldeetako ZAZPI zinegotziek.

7.- EAJ-PNV ren mozioa, La Herrerako lurren erabilgarritasunari buruzkoa.

Gaia mahai gainean geratu da espedientea udal idazkariari eskatutako txostenarekin osatzearen.

- Aktan jasota geratzeko esandakoak:
 - Guillermo Sánchez-Berra jn.ak, PPko zinegotzi-taldearen eledunak, mozioarekin ados dagoela adierazi du; hala ere, idazkariak ematen dituen azalpenen arabera, bere taldea abstenitu egingo da. Mozio hau hurrengo udalbatzarrera eramateko eskatu du, Idazkaritzaren txostenarekin batera.
 - Alkateak mozio hau hurrengo udalbatzarrera ekartzeko konpromisoa hartu du eta aurreratu du horrela egin ezean PSE-EE taldea abstenitu egingo dela mozioa aurrera atera dadin, baldin eta udalbatzarrera dagokion txosten juridikoarekin ekartzeko konpromisoa badago.
 - José Luis Goikoetxea jn.a, EAJko zinegotzi-taldeko eledun eta mozioa proposatu duena, gaia mahai gainean uztearen alde agertu da, hurrengo udalbatzarrera ekartzeko, Idazkaritzaren txosten juridikoarekin batera.

Eta, beste gairik ezean, 11:00etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin